



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Nóminas y cotizaciones Propuesta de resolución

Nominak eta kotizazioak Proposatutako ebazpena

45/2022

RHH16I010

Código de validación/Balidazio kodea
30670Z5J6X3G5I3E14MS



ASUNTO/GAIA

Propuesta de resolución sobre aprobación del incremento retributivo del 2% al personal al servicio de la corporación /Ebazpen-proposamena, korporazioko langileei% 2ko lansari-igoera onartzeari buruzkoa

Comisión Informativa de Asuntos
Generales-Pleno

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN/PROPOSATUTAKO EBAZPENA

Joan den 2021eko abenduaren 29an, Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2022ko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

“(…) Bi. 2022. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariek ezin izango dute ehuneko 2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokienez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2021ekoen aldean. Horri dagokienez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatik kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.”

El pasado 29 de diciembre de 2021 se ha publicado en el BOE la Ley 22/2021, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2022.

La referida Ley, regula en su Título III, Capítulo I, los gastos de personal al servicio del sector público, y en concreto en el artículo 19, aborda la cuestión de los límites de los incrementos retributivos para el ejercicio 2022, regulando lo siguiente:

“(…) Dos. En el año 2022, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2021, en términos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Los gastos de acción social no podrán incrementarse, en términos globales, respecto a los de 2021. A este respecto, se considera que los gastos en concepto de acción social son beneficios, complementos o mejoras distintos a las contraprestaciones por el trabajo realizado cuya finalidad es satisfacer determinadas necesidades consecuencia de circunstancias personales del citado personal al servicio del sector público”.

22/2021 Legearen 19. Bi artikularen
edukiari dagokionez ondokoa ERABAKI DA:
sektore publikoko langileen ordainsariak
legez onartutako gehienekoa, hau da,
2021eko abenduaren 31n indarrean
zeudenekiko %2 handitzea, konparazioaren
bi aldietarako (bai langile kopuruari, bai
antzinatasunari dagokionez)
homogeneotasuna mantenduz,
2022/01/01etik aurrerako ondorioekin..

En relación con el contenido del
artículo 19. Dos de la Ley 22/2021, se
ACUERDA incrementar las retribuciones del
personal, con efectos 01 de enero de 2022,
el máximo legal permitido, esto es, un 2%
respecto a las vigentes a 31 de diciembre de
2021, en términos de homogeneidad para
los dos periodos de la comparación, tanto
por lo que respecta a efectivos de personal,
como a la antigüedad del mismo